



BUKATU DIRA BERAZUBI AUZOKO JAIK

Pilar eguna ospatu dute aurtengoan, auzotarrek horrela eskatuta; babarrun jatea eta toka txapelketa izan dituzte > 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-10-13

VIII. URTEA 2.098. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Gaurtik hasita zazpi greba egun egingo dituzte metaleko langileek

EKONOMIA Bihar, etzi eta azaroaren 2, 3, 4 eta 5ean egingo dituzte lanuzteak Gipuzkoako metalean

HITZARMENA ELA eta LAB sindikatuek egin dute deia Adegri patronalak proposatutakoari aurre egiteko 2



Aurtengo krosak ibilbide luzeagoa izan du; 10,2 kilometro egin behar izan dituzte parte-hartzaileek. I. GARCIA

351 LAGUNEK AMAITU DUTE HERRI KROSA

TOLOSA Jose Javier Cuadrado eta Maider Gaztañaga izan ziren San Estebaneko kultur astearen baitan egiten duten krosaren irabazleak 6

Kiroldegiko kudeaketari buruzko zenbait argibide

ANOETA Kiroldegia kudeatzen duen BPXport enpresak aurkeztutako zenbait gastu zergatik ez dituen ordainduko azaldu du Udalak 7

San Esteban auzoko osasun etxea berritzeko eskaera

TOLOSA Auzoko erabateko eraberritzea egiteko plan berezia egiten ari da Udala 4-5



harpidedunak
TXOKOA hitza

Datorren urriaren 12an Ordizian ospatuko den Nazioen Mundua Scotland Euskal Herria jaialdiaren baitan, nesken elastiko bat, mutilen elastiko bat eta kontzerturako sarrera bat zozkatuko ditugu gure harpidedunen artean

Zozketetan parte hartzeko, deitu asteazken goizetik aurrera 943 655695 telefono zenbakira



sariak





Ekainean Tolosan egin zen metalaren manifestazioa. A. IMAZ

Gipuzkoako metaleko langileek ELA eta LAB sindikatuek deitutako lehen greba eguna dute gaurkoa. Bihar, etzi eta azaroaren 2, 3, 4 eta 5ean izango dute lanuzteek jarraipena.

Zazpi greba egun metalean

ITZEA URKIZU

Gipuzkoako metalaren hitzarmena negoziatzeko bilerak 2007an hasi ziren eta 2009an Gipuzkoako industria siderometalurgikoaren hitzarmen kolektiboa sinatu zen azkenik. Hitzarmen honen bidez, Gipuzkoako metalaren sektoreko langileek onura eta aurrerapenak lortu zituzten: soldata igoera nabaria izan zen, bereziki gaixotasun larrirei zegozkien baimenak hobetu ziren, dietak eta kilometrajea hobetu ziren eta langileriaren herenak deituriko batzarren ordainketa ezarri zen, besteak beste.

Adegik proposamen berria

Aurtengo otsailan, ordea, Adegik patronalak proposamen berri bat aurkeztu zuen. Euren esanetan,

«enpresek inguruarekin eboluzionatzeko beharra» dute eta hori dela eta, «Gipuzkoako metalaren hitzarmen kolektiboak ezin du eboluzio horretatik kanpo geratu».

Adegik beraz, argi zuen bere xedea: enpresei inguruko aldatketara egokitzea ahalbidetuko dien hitzarmen bat eskaintzea.

Horretarako, ordea, aldatketak proposatu zituen lan-egutegian, orduen eskuragarritasunean, mugikortasun funtzionala eta geografikoan eta beste zenbait esparrutan. Patronalaren proposamen berriak desadostasunak sortu zituen langileen artean.

Zentzu honetan, Adegik dio sindikatuek «ezezkoaren diskurtsoan» oinarritzen direla eta hasieratik ez dutela erakutsi patronalaren

hitzarmen berritua negoziatzeko asmorik, Adegik negoziatzaile eskualdeko «zabal zabalik» zituen bitartean.

ELA eta LAB, hitzarmen «serio» bat lortzeko lanean

Gauzak horrela ELA eta LAB sindikatuek zazpi eguneko lanuzteak deitu dituzte. Lehen gaur bertan izango da eta bihar eta etziko lanuzteen ondoren azaroaren 2, 3, 4 eta 5ean izango du deialdiak jarraipena. Gogoratu behar da, era berean, pasa den maiatzaren 28an eta ekainaren 4, 10 eta 11n ere greba deitu zutela ELA eta LAB sindikatuek.

ELAko eskualdeko metalaren ordezkariak dio «urte hasieraz geroztik Gipuzkoako metalaren hitzarmena negoziatu nahian» da-

biltzala, baina «Adegik ez du eskaintza serioerik egin eta ez dugu greba egitea beste aukerarik ikusten». ELAren ustez patronalak badaki aurkezturiko hitzarmena ez duela inork sinatuko eta beraz, «Madrilen egiten ari diren hitzarmen kolektiboaren erreformaren zain dago». Izan ere, lehenengoz CCOO, UGT eta estatu mailako metaleko patronala negoziatzen ari dira estatu mailako metalaren hitzarmen bat sinatzeko. Beraz, sindikatuek uste dute Adegik hori jakinda, Gipuzkoako metalaren hitzarmena gal dadin nahi duela, «bertan behera utzi nahi duela azken 30 urteotan lortu den guztia». Honek, era berean, soldaten jaitziera eta lanaldiak ez murriztea ekarriko luke. «Patronalak ez du Gipuzkoako metalaren hitzarme-

na aldatu edo eraberritu nahi, patronalak hitzarmen berri bat sinatu nahi du, zeinetan langileen eskubideak zapalduak izango diren», dio LAB sindikatuko metalaren arduradunak.

Negoziatzaile lortuezean, arriskurik handiena hitzarmenaren ultratibitateak galtzearena da sindikatuen esanetan. Hau da, gaur egun hitzarmen bat bere epe-mugara iristen denean hitzarmenaren artikulazio guztiak indarrean jarraitzen dute eta langileek ahalmena dute Gipuzkoako metalaren hitzarmena hartu eta zenbait hobekuntza negoziatzeko, hitzarmenak beti babes moduko bat ematen baitie. Hitzarmen kolektiboaren erreformarekin ordea, ultratibitateari epe bat ezarriko zaionaren beldur dira sindikatuek eta gauzak horrela estatuko hitzarmena izango litzateke indarrean jarriko litzatekeena. ELAren susmoa da «estatuko hitzarmen hau Gipuzkoako metalaren hitzarmena baino askoz ere txarragoa dela. Dena den, ez dakigu zer gertatuko den, ez dugulako informazioerik jasotzen UGT, CCOO, gobernua eta patronalaren eskutik».

CCOOek greba deialdirik ez

CCOOek, bere aldetik, ELA eta LAB sindikatuei «autokritika» egiteko eskaera luzatzen die, izan ere, euren ustez bi sindikatu hauek «erradikalitasun birtuala» egin dute eta alferrikako greba deialdi eta protestak antolatu dituzte, CCOO Araba eta Bizkaian lorturikoak baino helburu apalagoetara heltzea proposatuz.

Esan daiteke beraz, CCOO patronalaren proposamenarekin aurrrera egiteko prest dagoela, eta ez duela ELA eta LABen zazpi eguneko greba deialdia inondik inora zentzuzkotzat hartzen.

Ondorioak eskualdean

Zazpi eguneko lanuzte hauek ondorio esanguratsuak izango dituzte metaleko sektoreko langileen artean, izan ere Gipuzkoa osoan gutxi gorabehera 65.000 langileri eragiten dien auzia da metalaren hitzarmen kolektiboarena.

Deialdia egin duten sindikatuek zehazki grebaren jarraipena zenbaterikoa izango den ez dakiten arren, ordezkariak adierazi dute euren helburua ahalik eta enpresa gehienek zazpi egun horiei babesa ematea eta enpresariak euren Adegiri presioa sartzeko dela, Adegik bere planteamenduetan atzera egin dezan eta Gipuzkoako hitzarmena errespetatu dezan.

MOBILIZAZIOAK

Gaur manifestazioa izango da Tolosan 11:30ean Trianguloatik abiatuta. Bihar, berriz, hilak 14, Hernanin eta Beasainen izango dira mobilizazioak, eta hilaren 15ean Donostian. ELA eta LABek eskualdeko metaleko langile guzteei grebarako deia luzatzen zaie euren eskubideen alde borrokatzeko.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2010eko irailaren 27an, hasierako onepena eman dio honako proiektu honi zenbait baldintzarekin:


E.48 "Tolosana" eremuko urbanizazio proiektua.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGBI EGUN (Iragarki honen azken argitaratzea egin eta bihar munetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 196.2 artikulua xedatutako arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Hitzan eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-B-ko Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneke epean, Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2010.eko irailaren 30ean.
ALKATEA.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



«Herri eskola, aldarrikapen eskola»

TOLOSA «Pilarika jai inposatua delako eta honekin bat egiten ez dutelako» Tolosaldeko 35 gaztek Laskorain ikastolan egindako herri eskoletan hartu zuten parte. 09:00etatik 12:00etara bitartean hainbat ekitaldi burutu zituzten. Horien artean, hasteko, eraso sexisten inguruko hitzaldi bat izan zen; gero, euskal dantzen ikastaroa eta Euskal Herriko egoera politiko agertze zuen bideo emanaldia. Goiza ongi bukatzeko, hamaiketako egin zuten. Samanigo-Orixe eta Laskorain ikastolako DBH eta Batxilergoko ikasleek antolatu zituzten ekitaldiak. **HITZA**



Pilar eguna ere ospatu dute Berazubín

TOLOSA Lau eguneko ekitaldi festaren ostean, Berazubiko auzotarrek atzo esan zieten agur bertako jaiari. Gainera, aurten, aspaldiko partez eta auzotarrek eskatuta, berriro Pilar eguna ospatu zuten. Ekitaldien artean, lehendabizi meza ospatu zuten. Ondoren, eguerdi aldera, 70 lagun inguru bildu ziren karparen azpian, babarrunak jateko. Arratsaldean toka txapelketa ere jokatu zuten. Honenbestez, asteburu luze eta mugituaren ostean, normaltasunera itzuliko da gaur Tolosako auzoa. Barrakak jaso eta inguruak garbitzen nahikoa lan izango dute datozen egunetan. **IMANOL GARCIA**



Heldu taldea izan zen garaile Aian jokaturako norgehiagokan. **IBON ERRAZU**

Aiako giza proban eskualdekoak bigarren

Herri kirolak » Igandean jokaturako lehiaketan Orio aldeko Heldu taldea izan zen garaile; Aiztondokoak ere ongi aritu ziren.

» DATUAK

Urretxu

- **Taldearen pisua.** 649 kilo.
- **Egindako plazak.** 49 plaza eta 0,82 metro.

Aiztondo-Oarsoaldea

- **Taldearen pisua.** 675 kilogramo.
- **Egindako plazak.** 53 plaza eta 0,30 metro.

Usurbil

- **Taldearen pisua.** 697 kilo.
- **Gainzama.** 34 kilo.
- **Egindako plazak.** 47 plaza 5 zinta eta 2,25 metro.

Heldu (Orio aldekoak)

- **Taldearen pisua.** 669 kilo.
- **Egindako plazak.** 55 plaza 3 zinta eta 2,62 metro.

ERREDAKZIOA

Bigarren geratu ziren Aiztondo eta Oarsoaldeko tiratzaileak igandean Aian jokaturako giza proban. Oriotarrek gailendu ziren Aiako probalekuan. Heldu taldeko mutilek 55,5 plaza osatu zituzten, eta, hala, aurrea hartu zieten Tolosaldeko taldeari (53 plaza), Urretxuri (49 plaza) eta Usurbili (47,5 plaza).

«Lehia bizia izan zen» esanez laburbildu zuen txapelketa Heldu Herri Kirol Taldeko prestatzaile eta kide Pello Saizarrek. «Oso interesgarria izan zen, talde guztiak oso lan ona egin baitzuten».

Parte hartu zuen talde bakoitzak 20 minutuko saioa egin zuen, 900 kiloko harriari tiraka. Modu

tradizionalean egin zuten proba, harriari kate solean helduta; hots, harria ez zegoen metalezko egiturari lotuta.

Literatur lehiaketarako lanak aurkezten hasteko garaia iritsi da

Leitza » Kultur elkarteak antolatuta, bi ataletan banatzen da; batetik, narrazio eta ipuinak; bestetik, bertso papera.

ERREDAKZIOA

Leitzako kultur elkarteak antolatuta bosgarrenez Literatur Lehiaketa jokatu da. Bi sailetan banatu dute hau. Alde batetik, narrazio labur edo ipuinena dago, eta bestetik, bertso-papera.

Lanak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da. Idazteko zale-tasuna duen edozein leitzarrek hartu dezake parte txapelketan. Izan ere, iaz bezala, «idazlezaleez gain, bertso eskolako ikasleek nahiz bertsozaleek ere badute beraien trebetasuna erakusteko tokia». Parte-hartzaile guztiak jasoko dute sariren bat, eta sail bakoitzeko irabazleak 150 euroko saria etxeratuko du.

Parte-hartzaileek aipatutako epearen barruan, Astiz edo Maimur liburu-dendetan utzi beharko dituzte beraien lanak. Hori bai, lan

bakoitzaren hiruna kopia aurkeztu beharko dituzte, izengoiti batez sinaturik. Honekin batera, gutun-azal txiki batean barnean, egilearen datuak adierazi behar dira. Bertan agertu beharko du ere, zeintzuk diren izengoitiari dagozkion izen-abizenak, helbidea eta telefonoa.

Lanen ezaugarriak

Lan guztiak, euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Bestalde, gaia egileek aukeratuko dute. Dena den, narrazio eta ipuinei dagokionean testuen gutxieneko luzera bi orritako izango da, eta gehienez, hamarrekota. Bestalde, orriek DIN-A4 tamainakoak izatea eskatzen dute, alde bakar batetik idatziak, eta letra-tarte bikoitzaz. Arial letra tipoa erabili beharko da, 11, tamainakoa.

Bertso paper atalean berriz, gaia bezala, neurria ere librea da. Lau bertsoetik gora idatzi beharko dituzte parte-hartzaileek, eta gehienez hamasei. Bestalde, orrien tamaina eta ezaugarriak aurreko atalekoen berdinak dira.

Laburrak

Herri batzarra deitu dute bihar 20:00etarako

AMEZKETA » Ezker abertzaleak deituta herri batzarra egingo dute bihar iluntzean. Bilkura 20:00etan izango da bertako balioanitzeko gelan. Batzarrean, azken aste eta hilabeteetako akordio nahiz mugimenduak izango dira hizketagai. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.

Kultur Astea antolatzeko bilerara deitu dute biharko

ADUNA » Aurten ere azaroan Kultur Astea egingo dute Adunan. Hori dela eta, hau antolatzeko eta herritarren proposamenak biltzeko bilerara deitu dute udal ordezkariak. Batzarra bihar 19:00etan izango da, Kultur Aretoan.

Etzi iluntzean odola emateko aukera izango da

ALEGIA » Odola emateko aukera izango da etzi, hilaren 15ean, sendagilearen etxean. 19:00etatik 21:00etara bitartean egongo dira bertan. Hala, herritar guztiak deitzen diete odola emateko.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Harrera.** Bidaniako Hotel batean, gaueko harrera-lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek, bidali curriculum-a info@iriartejauregia.com helbidera.

MENDI-ALDE
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaiasmartzeak... **Jatetxea**
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20100 TOLOSA



San Esteban auzoan dagoen osasun etxea orain dela 18 urte eraiki zuten eta gaur egun, zerbitzu gehiago eskaintzen dituzte bertan. A. ALTUNA

San Esteban auzoko eraberritzean, osasun etxea bere horretan

Osasuna Inguru eraberritzeko plan berezian ez da osasun etxearen berritzetik aurreratu, baina langileek beharrezkotzat jotzen dute.

ANINDUA

Tolosako Udala San Esteban auzoan eraberritze ikaragarria ekarriko lukeen plan berezian ari da gaur egun. Auzoan aurreluzatuko eraberritzean, ordea, ez da bertan dagoen osasun etxearen berritze-rik auzoan, bere horretan utziko luke, bertako hainbat langilek eraberritzea beharrezkoa dela ikusten badute ere.

Hainbat arazo

Jendartean ongi zaita sarritan, eskaintzen den zerbitzuan arazoak izan ohi da gaur egun. Tolosa San Esteban auzoan osasun etxeak, due la urte batzuetatik hainbat arazoan kargarekin lan egiten du eguneroko chukra tolosarrei zerbitzua eskaintzen.

18 urte inguru dira erakina marraztu jarri zenetik, erakina nahiko berria delarik egun, eta orduz geroztik gaur egun arte, hainbat aldaketa egin dira herritarren osasun-

ren onerako. Ahalik eta zerbitzu zuzen eta egokiena eskaintzen saiatzen dira baina ezastrutura eta espazio arazoak medio, geroz eta zailagoa egiten zaien, eskaintza ikusiko zerbitzu egokia eskaintzen.

Tolosako Udala, San Esteban auzoan garatzen ari den plan orokor berezian bertan, osasun etxea ez dute bere gain hartzen. Bertako mediku eta ezinaitalde baten arabera, nahiz eta osasuna Osakidetza-aren kompetentzia izan, Udalak ere izan lezake zeresaniki herritarren osasuna eta larri arazoak menderatu bere gain hartzen.

Extea hain zaharra ez izan arren, denbora gutxiago zerbitzuak asko hobetu dira: personalari dagokionez, %20-25eko igotzea izan da; due la urte batzuk haurrentzako bi mediku zituzten, gaur egun hirugarren finko bat beharrezko josten dutelarik, haurren kopuru altua dela eta.

Larrialdietarako zerbitzua ere badute egun, lehen beste ambulanzan ematen zutenak soilik. Odiola ateratzen zerbitzua ere gaitu da, lehen ez bezala, epidemiari eragiten diren, elektroak egiten dira, haurren osasunaren kontrola ematen da, erditze aurreko gimnasia egiten da, emagina ere lanean aritzen da... Egun jende gehiago aritzen da lanean, zerbitzu hobea eskaintzen.

Plan orokor berezian, Udalak osasun zentroa ez du bere gain hartzen

Due la bost edo sei hilabete Osakidetza ardurak hartzen ditu, berritzea hobea emate aldera, espazioaren arazoak geroz eta handiagoa izango delarik.

Auzo eraberritzearen irtenbide argirik, ikusten ez duten arren, momentuko arazoak konpontzeko, erakinean zapiak idazten dagoen sotoa ari zuten zentzuzko zuzendutako. 45 langile aritzen dira eta ez daukate tokirik bilkura bat gauzatzeko, hiru garraio erabilgarri eta hiru garraio erabilgarri aritzen den koordinatzaileak ere ez dauka bereziko bulegorik.

Arauzoaren ondorioak

Toki faltak, urte baino arazo gehiago ematen dizkie langileei eta zeharka, baita Tolosako herritarrei ere.

Gaur egun, dokumentu gehienak digitalizatuak dauden arren, paperarean ere informazioa artxo

andana bildu behar izaten dute, legeak horrela agintzen duela. Ez dute eremu zehatzik artxo berritzea, dokumentuak kontsultatu dezberdinetan banan banan dituztelarik. Administrazioa personalak ere arazoak ditu, hasieran ez bezala, 7 lagun ar berritze lanean.

Emaginak ere espazio arazoak medio, beste ambulanzan eskaintzen da zerbitzua eta hainbat mediku kontsultak konpartitzen ari dira.

Tuandako lan egiten duen hirugarren pediatrak ez du tokirik beharrezko solairuan aritzen da beraz, eta hori gutxi balitz, haurrekin lan egiten duen erizain batek agendak murriztuak espazio faltagatik.

Erantzumen zain San Esteban osasun etxean Tolosa hirian, "gaur egokia da

orain, momentuko arazoak eta aurrerantzean etor litezkeen konpontzeko emateko. Izan ere, Tolosako Udala zertzen ari den plan berezi horren onarpen ematean, auzoak gutxi behera aldatuko lirateke eta orain da garaia zerbait egiteko.

Medikuaren arabera, Osakidetza-aren kompetentzia izan arren, Udalak ere badu zeresaniki, Tolosako herritarren osasun zerbitzua eta lur antolamendua nola kudeatu bere gain hartu. Udala, mahaizaren hanka garrantzitsu bat dela adierazten dute, eta gaur egun inguruko bere iritzia izango luke zeresaniki.

Arauzoari konponbide emate al-



Langileek aurreluzatutako eraikinak jartzea edo ferialdeari eremu biki bat kentzea proposatzen dute. A. ALTUNA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako datuak

A. ALTUNA

Hasek dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean izango marroaren 3in argitaratutako datuak:

- Antolamendua irizpide eta helburu orokorrak
- Esparruaren askotariko errealitateak daude bitzitegi-erakinek, ekonomia-jarduerarako erakinek, instalazio publikoak, ferialdeak, osasun-etxea, eta abar... Elsegie parkea.
- Esparruaren hiri-berritze eta hiri-bizializazio globalen planteatzen da.
- Trenbide-sarearen bi aldean arteko konexioak hobetzea, hiri-gunearen eta esparruaren eta bertan dauden eta aurreluzatzen diren garapenen komunikazio egokia lortzearen.

- Esparruaren bego-mendebaldean dagoen ekonomia-jarduerarako zona finkatu behar da (Tuzzieta, SA, Olega, Accesorios Urki, Urto eta beste enpresak okupatzen dutena).

- Beste errealitate batzuk ere finkatu behar dira: Zuberoa bitzitegi-multzoa San Juan kaleko 10 eta 12 zenbakietako bitzitegi-erakinekin, Osakidetza-aren instalazioak; Tolosaren instalazioak; eta abar.

- Elsegie parkea eta espazio libre publiko gisa finkatu behar da 1989ko Pungintzako Arau Subsidiarioetan jada aurreluzatzen zena.


- Esparruaren gainetik diren hiri-berrikuntza eta hiri-bizializazioa sustatu behar da, eta lehenetsuz bitzitegi-garapenean berritza zuzendu behar da.

- Ahalik eta etxebizitza kopururik handiena eta zentzuzkoena antolatzea: gaur 1066 etxebizitza inguru kalkulatuta da.

- Ahalik eta etxebizitza kopururik handiena lotzea babes publikoko garapenera bideragarria bermatatu duten baldintzetan.

- Etxebizitzaren garapenean berritza zentzuzkoan diren gaur egungo erakinek erabitea eta garapenean berritza zentzuzkoan diren jarduerak lezarduz.

- Esparru honetan planteatutako garapen berritza zentzuzkoan da Plan Orokor honetan planteatutako eskualde estategikoak, baina, Tolosaren etorkizuneko hirigintza-garapenean zentzuzkoan.



Gutira 45 pertsonak egiten dute lan osasun etxean. A. ALTUNA





Jose Javier Cuadrado eta Maider Gaztañaga helmuga zeharkatzerakoan. I. GARCIA

Cuadrado eta Gaztañaga ordiziarrak, aurrenak

Kirola » Lehen herritarrik Unai Arroyo eta Ane Elizegi izan dira; guztira 351 korrikalarik bukatu zuten XIII. Herri Krosa.

ERREDAKZIOA

351 lagunek amaitu zuten atzo egindako Tolosako XXIII. Herri Krosa. Azkarrenak bi ordiziar izan ziren. Gizonezkoetan Jose Javier Cuadrado eta emakumezkoetan Maider Gaztañaga. Herriko lehenengo biak Unai Arroyo, sailkapen orokorrean hirugarrena, eta Ane Elizegi, sailkapen orokorrean hamakagarrena izan ziren. Kasualitatez, bi tolosarrek 17 urte dituzte.

Juan Jose Primoy arrasatearrari aipamen berezia eman zioten, 70 urterekin adin gehien zuen korrikalaria izateagatik.

Ibilbide aldaketa

Aurtengo krosak berezitasun bat izan du, zirkuitua aldatu egin baita. Aurreko urteetan 9,6 kilometro zituen eta aurtengorako ibilbidea moldatu dute antolatzaileek 10 kilometrotara iristeko. Azkenean 10,2 kilometro egin dituzte korrikalariek. Aurten, Uzturre Asistentzi Gune berriaren atzetik igaro da lasterketa eta horrek beste aldapaxo bat erantsi dio zirkuituari.

San Esteban auzoko kultur astearen baitan antolatzen dute krosa. Hurrengo ekitaldia auzoaren etorkizunari buruzko hitzaldia izango da, gaur 19:30ean.

» SAILKAPENA

Gizonezkoak

1. Jose Javier Cuadrado. 33:23.
2. Juan Carlos Valdivieso. 33:40.
3. Unai Arroyo. 33:48.

Emakumezkoak

1. Maider Gaztañaga. 37:45.
2. Rosa Talavera. 39:39.
3. Aitziber Ibarbia. 41:08.

Lehen tolosarrak

1. Unai Arroyo. 33:48.
1. Ane Elizegi. 44:34.

Beteranoak

1. Jose Javier Cuadrado. 33:23.
1. Rosa Talavera. 39:39.

Jubenilak

1. Angel Pelaez. 36:16.

» IRABAZLEA



Maider Gaztañaga

Ordizia

Bigarren aldian da parte hartzen duela Maider Gaztañagak herri krosean. «Hasiera batean ez nekien nola nenbilen, kilometroak ez zeudelako markatuta. Laugarren kilometroan ikusi dut ondo nenbilen eta erritmoari eustera joan naiz». Ikusleen komentarioengatik konturatu da lasterketan zehar aurreko emakumezkoa zela. «Ez dit hainbeste axola zenbatgarren sartu naizen, gehiago begiratzen diot erlojuak zer markatzen duen eta gustura gelditu naiz egindako lasterketarekin».

» IRABAZLEA



Jose Javier Cuadrado

Ordizia

Ez du lehenengo garaipena Tolosan Cuadradok. Orain hiru urte ere irabazi zuen. «Proba dezente aldatu da aurrekoa irabazi nuenetik». Taldekide batek, gero bigarren egin duen Juan Carlos Valdiviesok, jarri du probaren erritmoa. «Azkar joan gara, baina lehenengo bi maldak pasatu ondoren, nahiko gogorren zirenak, zirkuitua suabeagoa egin da eta hor hasi naiz hobeto joaten». Metro batzuk atera dizkie aurrekoen multzoari eta tartea mantenduz, garaipena lortu ahal izan du.

» LEHEN TOLOSARRA



Ane Elizegi

Tolosa

Ez zuen espero lehenengo tolosarra izatea Ane Elizegik. Are gehiago, sari banaketan jakin du horren berri: «Jende ezaguna ikusi dut eta uste nuen tolosarrak zirela, baina dirudienez ingurukoak dira. Egia esan ezustekoa hartu dut». Hirugarren aldian da parte hartzen duena Elizegik eta aurtengoa «askoz gogorragoa» iruditu zaio: «Bi aldapa berri jarri dituzte eta gogorra egin zaigu hasieratik, baina bukatu dugu eta herriko krosa denez, oso gustura emaitzarekin».

» LEHEN TOLOSARRA



Unai Arroyo

Tolosa

Hirugarren aldian izan arren, serio ki parte hartzen duen lehenengo aldian du Unai Arroyok. «Aurreneko postuetan ibiltzen saiatu naiz. Orain dela gutxi hasi ginen entrenatzen eta espero dugu garaipenak iritsiko direla». Probaren hasieran pixka bat nekatuta zegoen, baina gero hobeto sentitu da. Hala ere, azkenerako ere oso nekatuta sentitu da. Laugarren sailkatuarekin lasterketaren azken tartean izan du lehia eta azkenean Arroyok lortu du hirugarren postua.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Abraham Olano kiroldegiko kudeaketa ezbaian

Anoeta » Udalak BPXport enpresak aurkeztutako gastuen inguruko informazioa zabaldu du.



Abraham Olano kiroldegia. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak azkenaldian herrian Abraham Olano kiroldegia kudeaketa dela eta zabaldu diren «zurrunmuru eta akusazioen» harira zenbait gauza argitu nahi izan ditu.

Lehenik eta behin Udalak Kiroldegia kudeatzen duen BPXport Kirol Zerbitzuak SL enpresak aurkeztutako zenbait gastu ez dituela bere gain hartu argitu du, izan ere «ez zaigu iruditzen Udalak, eta azken finean anoetarrok, horiek ordaindu behar ditugunik». Horiek horrela, urteko kudeaketa gastuen inguruko informazioa zabaldu du Udalak.

Telefono gastuak

Telefono gastuei dagokionez, «Anoetako Udalak urte osoan 9.000 euro inguru ordaintzen ditu udaltxeko telefono finko, mugikor eta Interneteko konexio guztiengatik. BPXportek 9 hilabeteko epean 6.410 euroko gastua aurkeztu du telefono finko eta mugikorreretan. Udalak beregain hartu du finkoaren kostua (797,95 euro), ez aldi mugikorrena. Gainera, abuztuan kiroldegia 3 astez itxita egon zen arren, hilabete horri dagokion 509 euroko faktura aurkeztu dute. Anoetako herritarrok ordaindu behar al dugu hau?», argitu dute.

Dieta gastuak

Dieta gastuen ingurua ere argibideak eman ditu Udalak: «Udalari 2.550 euro ordaintzea eskatzen diote dietak direla eta. Besteak beste, sagardotegietako 5 faktura, jatxetako 16-horietako bat 11 lagunena-, eta deigarriena dena, Donostiako jatetxe batean 18 lagu-

nentzako otordua aurkeztu dituzte. Ez dugu ukatzen dieta gastu horiek BPXport enpresaren gastuak izan daitezkeenik, baina, anoetarrok ordaindu behar al ditugu gastu horiek?».

Inbertsioak

BPXportek ere inbertsio ugari egin ditu eta horiek Udalari pasa dizkiete: «Enpresaren izenean eta bertako lanetarako furgoneta bat ere erosi dute -California Beach bat: 39.500 euro-. Enpresak lau udaltxeko kiroldegietan lan egiten duenez, Anoetako Udalari furgoneta horren laurdena ordaintzeko eskatzen diote. Anoetako Udalak furgoneta hori erabili ahal izango du? Orduan, zergatik ordaindu behar dugu herritarrok?».

Beste gastu batzuk

Beste gastu «esanguratsu» batzuk ordaintzeko ere eskatu dio enpresak Udalari: «Lan administratibotik 14.000 euro gastatzea aurreikusi dutela esanez, kopuru hori eskatzen diote Udalari, inolako xehetasunik eman gabe. Horrez gain, hainbat galera izango zituela ere aurreikusi zuen BPXport enpresak -10.700 euro- baita irabaziak ere -6.150 euro- eta horiek

izana -854 euro-; lanera etortzeko erregaietan gastatzen dutena -1.845 euro-; gestoria gastuak -4.756 euro-; langile batek egindako master bat -2.730 euro-; BPXport enpresak eta ez Anoetako Kiroldegia, ISO kalitate sistema lortzeko egindako aholkularitza-gastuak -3.635 euro-; eta abar luze bat. Gainera ezin dugu ahaztu diru publikoaz ari garela eta faktura originalak aurkeztu beharko litzuketela, aurkeztutako fotokopien ordeez. Anoetako Udalak horiek guztiak ordaindu behar al ditu? Gure ustez ez», azaldu dute irmoki.

«Beraz, eta laburpen modura, aurkeztutako gastuen kopurua 269.941,81 euro dira eta orain arte aipatu direnaz gain beste zenbait gastu justifikatu gabeko kopurua 71.757,09 euro. Justifikatu gabeko gastuak ordaindu behar ditugu? Onartutako gastua hau da: 269.941,81 -71.757,09 = 198.184,72. Diru sarrerei dagokionez berriz, kuotetatik 53.906,07 euro jasotzen dira, Udalak ordaintutako fakturak 2.911,32 euro ematen dute eta Udalaren ekarpenak 164.661,18

euro dira. Guztira, hortaz, 221.478,57 euro».

Enpresarentzat honek guztiak 23.293,85 euroko (221.478,570 euroei 198.184,72 kenduta) superabita suposatzen du Udalak emandako datuen arabera.

Udalak, zentzu honetan, 2010eko urrian eginiko diru aporrazioaren kopurua ere eman du, 86.706,15 euro.

Ur beroa moztu dute «Udalak presionatzeko»

Erabiltzaileek ondorioak jasaten ari direla ere salatu du Udalak. «Ur beroa moztu dute Udalari presioa egin nahian, baina ez gaude hori onartzeko prest, erabiltzaileek ordaintzen duten zerbitzua jasotzeko eskubide guztia baitute».

«Amaitzeko, aipatu nahi dugu BPXport enpresak Anoetako Gazte Asanbladako futbol taldeko kideei jakinarazi diela Kiroldegiko ordutegiaz kanpo ezin izango dituztela instalazioak erabili, baina, norena da kiroldegia? BPXportena ala herritarrena?», gaineratu du Udalak.

Beste gastu batzuk

Beste zenbait gastu ordaintzeko eskatu izana ere salatu du Udalak. «Enpresen elkarte batean sartu

Irudikatu mundua BERRIArekin

Egin harpidedun eta jaso

ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berresken ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonia
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:

samsung LE 32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, ari D-Net+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonestore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.

elektra
www.elektragalluak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info **Aukerazazu.BIZIEUSKARAZ.berria**

Gipuzkoako Txapelketako emaitzak

ERREDAKZIOA

Aurrera jarraitzen du Gipuzkoako Pilota Txapelketa 2010-2011, baina eskualdekoak ez ziren oso fin ibili pasa den larunbatean izandako partidetan.

Seniorreko banakako mailan Tolosako Beotibarren izan zen hiztordua. Bertan Aurrera-Saiazeko Perezek jokatu zuen Añorga Ien aurka eta 7-22 galdu zuen norgehiagoka.

Seniorreko lehen mailan aldiz, Aurrera-Saiaz 2ko Xabier Urbietak eta Biain aritu ziren Ilunpe 2ko pi-

lotarien aurka Beotibarren eta 22-5 irabazi zuten.

Azkenik seniorreko ohorezko mailako partidak izan ziren. Villabonan herririk bertako Behar Zana eta Aurrera-Saiaz 1 taldeak aritu ziren eta billabonatarrek irabazi zuten 22-19. Hernanin aldiz, Aurrera-Saiazeko Apezetxea-Semperrenak 8-22 galdu zuten Hernanik bikotearen aurka, eta Elgetan, Aurrera-Saiaz 3 taldeko Galarragak eta Zubirik ezin zieten aurre egin Ozkarbi taldeko bikoteari eta 22-9 galdu zuten.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Ikaztegieta » Birjinaren omenezko ermitaren inguruan hainbat ekitaldi burutu zituzten atzo egun gutzian zehar.

ERREDAKZIOA

Pilar eguna ospatu zuten atzo Ikaztegieta. Herrigunearen amaieran kokatuta dagoen ermitan ekin zioten jai egunari. Haste-ko, birjinaren omenez meza ospatu zuten. Ondoren, Ikaztegieta, Abaltzisketa eta Orendaingo trikitilari gazteak arduratu ziren giroa berotzeaz. Goizean nahiz arratsaldean astindu zuten hauek hauspoa.

Arratsaldean herri-kirol erakustaldia izan zen. Arabatik etorri ziren bi kirolari. Han ohitura den bezala, modalitate ezberdinetan lehiatu ziren ikuskizun anitza osatuz. Denera, zazpi kirol erakustaldi egin zituzten. Lasto fardoak polearekin altxatuz hasi ziren, gero aizkorarekin jarraitu zuten, eta ondok, ingudearekin, lasto fardoak jaurtitzen, trontzan... aritu ziren. Kirol bakoitzean saio laburrak egin zituzten, baina azkenerako, lan handia egin behar izan zuten.

Gune txikiaren bueltan jende ugari bildu zen erakustaldia bukatzerako, eta ikaztegietaarren txalok jaso zituzten bi kirolari adituek.

Herri-kirol ikuskizuna Pilarikan



Goiza eta arratsaldea aritu ziren trikitilariak; zazpi modalitetan aritu ziren kirolariak atzo, Ikaztegieta. E. EZBIZA

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra, Benidormera bidaia antolatuta du Biltoki jubilatutako elkartek. Izen-ematea, Txermingo egoitzan asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.
■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek irteera antolatuta du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, Elkartearen.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Inestable GKO Galleryren produkzioaren erakusketa Aranburu Jauregian azaroaren 13a arte.
■ **Tolosa.** Ertza erakusketa ikusgai egongo da GKO Galleryn azaroaren 6a arte.
■ **Alegia-Tolosa.** Itziar artista irundarrak lore lehorrekin egindako koadroak ikusgai jarri ditu Alegia-ko Jubilatuen tabernan (azaroaren 6a arte daude bertan) eta Tolosa-

ko Lanbroa tabernan hilaren 31a arte.

Lehiaketak

■ **Ibarra.** III. Galtzakomik komiki lehiaketa euskaraz. Gazte eta helduentzat, gai librea. Lanak Galtzaundi euskara taldearen egoitzan entregatu behar dira, azaroaren 30a baino lehen.
■ **Zizurkil.** Udaleko Euskara sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen artean Teodoro Hernandezena Ipuin Lehiaketaren IX edizioaren deialdia egin du. Gaia librea izango da eta euskara erabili beharrekiko hizkuntza. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu behar dira azaroaren 18a bitartean, egun hau barne 14:00ak baino lehenago Zizurkilgo Udala Bulegoetan.
■ **Tolosa.** Fronton kafetegiak antolatutako X. Mus Txapelketa Azkara azaroaren 13an izango da Beo-

tibar pilotalekuan 16:30etik aurrera. Izena fronton@jeub.org helbidean edota 943 65 14 70 telefono zenbakian eman daiteke. Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu behar harko dituzte hartzeagatik. Lehenengoak 1.200 euro, txapelak eta garaikurrak eskuratuko dituzte, bigarrenengoak 600 euro eta garaikurrak, hirugarrenengoak 300 euro, laugarrenengoak 150 euro eta bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren egiten dutenek 100 euro.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1. 943-67 38 49.
■ **Iruztzun.** Gastearena, M. -Martirena, J. Amaia, 4. 948-56 42 48.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 948-51 31 28.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

30 min 10 le gila hizkuntza-kudeaketa enpresan

S. JARDUNALDIA
IMH, ELGOIBAR 2010/10/21

13 hitzaldi + mahai ingurus: eukara itzazu zureak!

| | |
|--|--|
| 1 HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUORDETZA Mitzearen sarrera | 7 EROSKI - ELHUJAR. Eroskiko adarazte sistema |
| 2 EUSKALIT Bikain eta 3 urteko ebaluazioen eradiografia (Euskararen Kalitate Ziurtagria) | 8 DAHOBAT. 10 urte euskararekin |
| 3 LANGUNE. Hizkuntzen industria | 9 GFA. Euskara erabilizko programak: piangintza, gauzatzea eta ebaluazioa |
| 4 Itzulbata (EIZE) Eleanzatasuna - enpresa - itzulpena | 10 CAF. Hizkuntza Politika Orokorra |
| 5 EMUN. Joepi Inarrotza. Esanetik egitera. | 11 DON BOSCO GLHEI - GARGOALDEA Don Bosco-ko Lanbete Heziketako Ikasleen Lantokiko Prestakuntza Euskaraz |
| 6 JEZ SISTEMAS FERROVIARIOS - ARTEZ. Zelan gestioan five Sprachen dans l'entreprise? | 12 MAQUELSA-KONICA MINOLTA-ASEK Fotokopiagailuen softwarea euskaraz |
| | 13 Bih. Software eskearen aplikazioak Bihin IP telefonian hiru etelan |

Informazio gehiago: www.imh.es